

«Ni ere, kalean egonda, gogortu egiten naiz jendarte erabat biolento eta bidegabe honetan bizirauteko»

Txori urdinak. Espetxearen erretratu bat Santi Cobos presoaren ahotik” testigantza gordina eta hainbat kontu ezerosoz hausnarrarazten duen liburua da. Zigor Oleagak idatzi eta “Argia” aldizkariaren eskutik argitaratu berri du.

«Quincallero-en familia batetik nator. [...] Nomadak ziren, astoek edo zaldiek bultzatzen zituzten gurdietan mugitzen ziren. Baztertu xamar zeuden orduko jendartean. Ibiltaria izatean, herrira heltzen den ijitoaren pareko zinen nolabait. Ez ginen katolikoak gainera, eta garai hartan elizara ez joatea... Bizitza txakurra: gosea, bazterketa, kalamidadeak, zubi azpian sartu, haur asko izan». Horrela hasten da kontaketa, jendarte «zibilizatuak» marjinatuak kondenatzen dituen logika maltzur horren araberrako bizipenek osatzen dutena: espetxe sistema luza-roan eta modu bortitzean jasan duenaren testigantza.

Santi Cobosek bizitza erdia eman du kartzelan, 25 urte inguru. Espetxealdi bereziki gogorra izan du, gainera, eta haren bizipenen bidez, liburuak espetxearen ikuspegia ere eskaintzen du.

«Zure izotzean zaude eta ez duzu nahi inork zure izotza berotzea, bigundu egiten bazara behera etorriko zarelako, ze espetxea ez da bizigarria», dio Cobosek. Ideia hori biltzen du liburuaren izenburuak. Charles Bukowskiren izen bereko poema batetik hartua da: poetak bihotzean daukan txoria du hizpide; txoria maite du, baina gordean darama, ez baitu inork ikusterik nahi.

Santi Cobosi egindako elkarriketetan oinarritu duzu kontaketa. Azken elkarriketak kartzelan eginak, ezta?

Ez, denak kalean, baina azken solasak, lana orrazteko, zalan-tzak argitzeko eta abar, telefonoz, bisita batzuetan, Valentzian eta Zaballan, eta gutunez egin ditugu. Esate baterako, gai labainen bat, hala nola funtzionarioen gainekoak, barruan dagoela kontuan izanda, ea kentzea nahi zuen galde-tzen nion nik, eta berak ezetz. Izen propio batzuk kendu besterik ez dugu egin. Batez ere nik idatzitakoa kontrastatu egin dugu, izenburua, azala...

Kontaketa gordina da. Zuk aurkezpenean esan zenuen ez direla «batailatxoak», eta Cobosek ez duela errugabe diskurtsorik.

Hala da, eta nik hori ikaragarri eskertzen diot, zuri-beltzeko diskurtsorik ez egitea, alde batetik biktimak eta bestetik borreroak. Egin dituen gauzak kontatzen ditu, eta batzuk ez dira bere irudiarentzat atseginak. Beste alde batetik, ez da biktimismoan erortzen, eta erraz luke, sekulakoak egin izan dizkiote-eta. Orduan, eskertzen diot bere burua orban-gabeko heroi edo biktima bezala ez agertzea, baizik eta bere argi-itzalekin, eta ez hitz egitea kartzelako momenturik txarrenez bakarrik, baizik eta baita irteeraz ere, nola irteten den biolentziaz kargatuta... ni ez nintzateke hainbeste biluztuko. Berak onartu egiten du hau edo bestea egin duela diskurtso autojustifikatzailerik gabe.

Niri asko gustatu zitzaidan kartzeleroekin izandako elkarriketa batzuen kontaketa. Batzuek esaten zioten: «Zuk

egin dituzunak...», eta berak: «Bai, nik egin ditut egin ditudanak, eta nire askatasunaren bila egin ditut, baina bada diferentzia argi bat: zuek egin dizkidazuen guztiak ez ditu inork ordaindu, eta nik egiten ditudan guztiak ordaintzen ditut». Izan ere, sei urteko zigor batekin sartu zen eta 70 urte pilatu zituen, eta ez du kontatzen damu klabea, ez boterearen parametro horietan. Zintzotasun hori eskertzen dut, bestela niri zaila gertatuko zitzaidakeen hori liburuan isaltzea, eta erraz jarri dit, zeren momentu batzuetan gauza batzuk berarentzat gogorrak zirela pentsatzen nuen, «sartuko dut hau?», bera justifikatu nahian edo, berak autojustifikaziorik egiten ez duenean. Nik ez dut esan behar ondo edo gaizki egin duen, baina ez nuen itzalik agertu gabe idatzi behar. Eta horrelakoetan bera uzkur agertu izan balitz, niri zaila egingo zitzaidakeen.

Kartzelatik irtendakoan nabaritu dituen bultzada biolentoen gainean ere hitz egiten du. Hori, bide batez, kartzelaren ustezko funtzioaren eta benetako eraginaren adierazle izan liteke.

Nire ustez, oso kontalari ona da, eta adierazteko modu berezia du. Nik neure buruari presioa sartu nion istorioa ez izorratzeko, bai indar handiko istorioa delako, bai kontalari ona delako. Horren erakusgarri da nola dioen espetxean gogortu egiten zarela, berak «animalizatu» esaten du bere buruaz, nola biziraupenerako gorrotoa eta biolentzia helduleku dituen eta, aldi berean, samurtasunari eta elkartasunari heldu behar dien espetxe-

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

«TXORI URDINAK» LIBURUAREN EGILEA

Preso baten bizipenak bildu ditu eta horien bidez espetxearen erretratu bat egin du, gizartearen erretratuaren isla baino ez dena. «Desberdintasun bakarra egoera da. Logika eta oinarria berdinak dira».

aren produktu ez bilakatzeko, beraren hitzak erabilita. Tituluak horrekin du zerikusia.

Espetxe barruko tentsio horrek irtetea ez zuten eragin de- zake. Horrek ni eraman nin- duen esatera kartzela gizartearen isla dela, presoek maiz esan bezala. Nik sarritan pentsatzen nuen, «hau da asta- keria!», baina baita guk kanpo- an berdin egiten dugula ere. Edo nik behintzat kanpoan berdin egiten dut, gogortu egi- ten naiz jendarte erabat bio- lento eta bidegabe honetan bi- zirauteko. Ni erasan egiten nau jendea eskean ikusteak, eta egunero ez sufritzeko, gogortu egiten naiz, nabaritzen dut, sentsibiltatea nolabait kamus- tu egiten dut, baina aldi berean nire borroka da sentsibiltate horri eustea gauza horiek era- saten eta amorratzen jarraitze- ko. Askotan ispilu lana egiteko balio izan dit. Berak egindako, bizi izandako zenbait gauza as- takeria galanta zirela pentsatu, eta gero ulertzen nuen diferen- tzia egoera dela, bera muturre- ko egoeran dagoela, baina logi- ka eta oinarria berdina da.

Liburuaren aurkezpenean, Mitxel Sarasketak esan zuen botere harremanak errepro- duzitu egiten direla kartzel- an, modu gordinagoan. Hain zuzen ere, jendartearen isla gordin eta krudela dela.

Bai, nik uste dut liburua, zen- tzu horretan, espetxea ezagu- tzeko irakur daitekeela, baina aldi berean ispilu bezala har- tuta, gure jendarteaz ohartze- ko, normalizatuta ditugun gauza askotan mekanismo berdintsuak daudela: hierar- kia, boterekeria, obediencia saritu eta desobediencia zi- gortzea, nola sistema saiatzan den behekoen arteko elkarta- suna pitzatzen... Hori guztia,



Argazkiak: Raul BOGAJO | FOKU

IBILBIDEA

Gasteiztarra, 1978an jaioa. Historialaria. «Gerra zibila Otxandion» liburua argitaratu zuen 2011n, Bizkaiko herri horren bonbardaketaren eta haren ondorioen gaineko ikerketa. Herri mugimenduari oso lotua, urte askoan euskal preso politikoen aldeko lanean eta Salhaketa elkartearen jardun izan du, besteak beste. Gaur egun «Argia» astekariko kazetari da.

botereari dagokionez, hemen ere badago. Eta boterean ez gaudenon eta are boterearen aurka gaudenon artean elkar- tasun ahalegin batetik ere aldi berean baditugu joera batzuk elkartasunarekin bat ez dato- zenak. Nire ustez, hori guztia barruan dago eta kanpoan da- go. Mitxelek esan zuen bezala, barruan muturreko moduan.

Santik, kartzelarik gabeko jendarte bat posible den hizpi- dera ekarrita, behin esan zuen: «Kanpoan nolabait demokra- zia faltsua bizi dugu, eta ba- rruan diktadura». Neurri bate- an berdinak dira, baina ez dira berdinak. Santik esaten zuen: «Igual bada garaia espetxera gutxienez demokrazia faltsua heltzeko». Bai, berdintsuak di- ra, baina bat berniz demokra- tikorik gabekoa.

Elkartasuna pitzatzen saia- tzen direla esan duzu, eta el- kartasuna nabarmendu zuen Sarasketak. Berak bizi izan du, beste hainbatek bezala, eta bi norabidetan nabar- mendu zuen haren balioa: ja- sotzean eta ematean.

Asko gustatu zitzaidan Mitxe- len esku-hartzea. Elkartasuna- ren noranzko biko balio hori nabarmendu zuen zenbait adi- bide jarrita. Liburuaren helbu- ruetako bat, Santik eta biok partekatua, zubi horiek ikusa- razi eta haien balioa agerian jartzea zen. Izan ere, oro har jendartearen migrantea izatea, edo emakumea izatea, edo di- ruduna izatea edo ez izatea oso desberdin bizitzea da, jen- darte berean bada ere, eta bo- tereak banaketa hori elikatzen du, kanpoan eta barruan. Or-

duan, batetik eraikitzea eta bestetik dauden guztiak ikusa- raztea balio bat da.

Elkartasun horrek, egunero- koak, kartzelan bizirauteko ba- lio du. Santik, besteak beste, Antselmo Olano gogoratzen du liburuan, barruan berekin egon zen euskal preso politiko ohia eta Donostiako aurkezpe- nean parte hartuko duena. Ha- ren oso oroitzapen ona du, ba- rre asko egiten zutela dio. Eman lezake elkartasun kon- tuek egoera horretan oso gau- za politikoa izan behar dutela, ekintzak, komunikatuak... bai- na elkarrekin bazkaldu eta ba- rre egitea, kartzela bizigarria- goa egiteko giro ona elikatzea, egunerokotasuna partekatzea ere bada elkartasuna.

Elkartasun politikoa zigor- tzen da, bai, baina ez elkartasun


politikoa bakarrik, eguneroko elkartasun hori ere zigortzen da. Santik kontatzen du nola Salamancan bazuten tailer bat, bertan oso ondo pasatzen zuten eta funtzionarioak hori saihesten saiatzen ziren. Edo hamasei urterekin, adingabe-koen kartzela batean zegoenean, beldurrezko egoeran, tartetan tratatu txarrak... eta adin txikikoak, 16 edo 17 urteko gazteak, bortxaketak eta preso nagusien abusuak saihesteko elkartzan ziren. Honela kontatzen du berak: «Beste presoek bortxatzen gintuztenean, jipoitzen gintuztenean, ez zegoen inongo arazorik espetxe-ko zuzendaritzarentzat, baina haien aurrean elkartzen gine- nean, labana eskuan, berriro ukitzen bagintuzten akabatuko genituela esateko, batzuk beste leku batera eramaten zituzten, beste batzuk bakartu egiten zituzten... orduan bai, arazoa zegoen».

Preso sozial batzuen eta politikoen arteko harremanak maiz lekurik txarrenetan sortzen dira, bakartze moduluetan, FIES izendapenaren pean... Santik pasarte batean dio nolabaiteko «politizazioak» zentzua eman diola bere jarrerari, bere bizi borrokari. Bai. Nik FIES delako sailkapena ezarri zieten batzuen zenbait liburu irakurri ditut; esate baterako, Patxi Zamororena, gero Euskal Herriarekin lotura handia izan zuen lagunarena, Xoxe Tarriorena... guztiak ingurune sozial eta ekonomiko bazter-tuetatik datoz, eta beste alde batetik, denek daukate injustiziaren aurkako sena, autoritatea, egoera bidegabeak ez onartzeko joera. Oso kalekumeak dira, batzuetan ondo egingo zuten, beste batzuetan okerrago, baina halako sen errebeldea

«Espetxean gogortu egiten zarela dio, berak ‘animalizatu’ esaten du bere buruaz, nola biziraupenerako gorrotoa eta biolentzia helduleku dituen eta, aldi berean, samurtasunari eta elkartasunari heldu behar dien espetxearen produktu ez bilakatzeko, beraren hitzak erabilita»



daukate. Santiren kontaktetan ikusten da nola politikoe-kin topo egiteak elaborazio bat eman zion. Berak arau batzuk haus-ten ditu ez zaizkiolako ondo iruditzen, ez delako justua, eta politizazioak, zergati politiko bat bilatzeak, bai bere jarrerari bai bizi zuenari zentzua emateko balio izan zion. Momentu batean dio adin txikikoen kartzelan zegoenean, bortxatu edo egurtu zezaketen beste preso batzuk modulu psikiatrikoan zeudela, eta berak haietako bati «marikoi zikin hori!» esan zion batean, politiko bat agertu eta azaldu zion burutik zegoela eta siste- mak hori ahalbidetzen duela. Horrela joan zen perspektiba bat hartzen. Euskal preso poli-



tikoekin, GRAPOkoekin eta Terra Lliurekoekin elkartu zen, eta haren formazioan, era be- rean, oso garrantzitsua izan zela dio Claudio Lavazza anar- kista, urte askoren ondoren oraindik kartzelan dagoena. Politizazioak, beraz, batez ere zergatia, arrazoiketa bat eman zion eta hortik, bizi zuenari eusteko heldulekua. **Antselmo Olano aipatu duzu, eta euskal preso politiko ohi gehiago ditu lagun. Horieta- ko bik idatzi dute liburuaren hitzaurrea, «Santi Cobosen la- gunak espetxe barruan eta kanpoan» sinatuta.** Bai, Asier Otxoak eta Gorka Lazkanok. Berarekin egon ziren Salamancan eta adiskidetasun

handia egin zuten. Gorka den- bora gutxiago egon zen berare- kin, kalera irten baitzen, baina harremanari eutsi zioten. San- tik kontatzen duenez, kanpoan lagunak izatea oso garrantzi- tsua da bizitza bat eraiki ahal izateko. Eta Santi irten zenean, bere etxera eraman zuen Gor- kak: «Hau da gure etxea, behar duzunerako», esan zion. Liburuaren hitzostea Salha- ketak egin du, nolabait zubi hori irudikatu eta elikatu as- mo horrekin. Santiren ahotsa lehen pertsonan agertzen da, eta bi preso politiko ohik ida- tzitakoak, Salhaketarenak eta Itziar Morenoren marrazki ba- tek osatzen dute. Itziar gaur egun Rennesen dagoen euskal preso da. Niretzat polita da

espetxeari buruzko liburu ba- tean espetxea ezagutzen dute- nek, barruan egondakoek edo haien alde lan egindakoek hitz egitea, niri lotsa pixka bat ematen zidalako halako prota- gonismoa izatea. Nahiz eta nik espetxearekin edo espetxera- tuekin harremana izan dudana, azkenean diskurtsoa espetxe- an egon ez garenok egiteko arriskua ikusten nuen, beste esparru batzuetan askotan gertatzen baita hori. Beraz, ilu- sioa egiten dit nolabait espe- txetik egindako liburua izatea.

Zergatik irakurri behar da li- buru hau? Jendeari irakurtzeko gonbita luzatu nahi diot, hiru irakur- keta posible dituen lana dela kontuan izanda. Bat, Santiren istorioa, eleberri modukoa de- na, erregistro asko dituen, oso gordina batetik, baina bes- tetik umorea ere badaukana, eta hausnarketa, dena Santi- ren izaerari lotuta.

Beste irakurketa bat, espetxe sistemaz pentsatzeko lan mo- duan, hori dago hondoan. FIE- Sa, muturreko egoera, nahiz eta oso ados geunden biok ezin zela hori bakarrik ardatza izan, bestela gerta liteke 90eko hamarkadan Estatuak egin zi- tuen astakeriei erreparatu eta espetxearen historian salbues- pen bat moduan geratzeara. Ge- ro ikusten da bigarren gradura pasatzen denean beste espe- txe mota bat dagoela, baina hori ere espetxe zigortzaile, anker, insolidario, boterekeria nagusitzen denekoa... Eta gure jendarteaz ere hausnartzeko gako batzuk daude. Azkenik, gonbidapena pen- tsatzeko nahiko kontzientziatu- ta gauden herria honetan, es- petxearekiko zalantzak egonda, nik uste dut espetxea eta agin- tekeriaren aurka gaudenon ar-

*«Uste dut liburua
espetxea
ezagutzeko irakur
daitekeela, baina
aldi berean ispilu
bezala hartuta, gure
jendarteaz
ohartzeko,
normalizatuta
ditugun gauza
askotan mekanismo
berdintsuak
daudelako»*

tean ere zigorren kultura oso barneratua daukagula gure gatazkak bideratzeko orduan. Eraso egiten digutela sentitzen dugunean, zein erraz jotzen dugun espetxea edo polizia eskatzera. Goikoentzat eskatzea, espetxea eskatzen dutenentzat eskatzea eztabaidatu liteke, baina behekoen eraso bat, lapurretatxo bat nabaritzen dugunean, zein azkar birsortzen ditugun jarrera punitibo horiek, gero hain argi badugu ere jendarte bidegabean bizi garela. Orain dela hiru edo lau urte Santi minduta etorri zitzaidan, jakin zuelako gune eraldatzaile batean, jendarte eraldatu nahi duen gune batean, tipo bat egurtu zutela zerbait lapurtzen harrapatu zutelako. Zipaioei deitu eta gero salaketa jarri zuten. Santik ez zuen ezagutzen, baina jakin zuen kalean bizi zen pertsona zela, etorkina, eta zigortzen bazuten kanporatzeko arriskua zuela. Eurekin hitz egin genuen eta salaketa bertan behera utzi zuten.

Ez dut errazkerian erori nahi, badakit zaila dela gatazkak beste era batean bideratzea, ez dugu erremintarik, baina behintzat problematizatu dezagun, pentsa dezagun beste modu bat bilatu behar dugula. Badago horretan saiatzen den jendea, baita herrigintzatik ere, bereziki feminismotik, zigor eredurik sortu gabe... horri eredugarria deritzot, arreta biktiman jartzea. Zigor sistemaren ezaugarri bat da erasotzailearen zigorrean jartzen duela arreta osoa, berdin dio biktimak zer sufritzen duen: epaiketan biktimak berriro oso txarto pasatzen du. Beste gizarte bat nahi badugu, gatazkak bideratzeko bestelako eredu bat behar dugu; bestela, hortik ez gara ateratzen.

Benetako pena eta gogorra da Santi berriro espetxeratu izana,

ez dakigu zenbaterako. Berak azaltzen du liburuan zer gertatu den. Aurkezpenean berak izan behar zuen protagonista, lekukotasuna berea da-eta.

Pandemia gogorra izan da gehienentzat, zeresanik ez presoentzat, etengabeko «konfinatu» horientzat.

Beraien ahotsetik erantzun dezaket. Orain dela hilabete batzuk horretaz idazteko eskatu baikenien zenbait presori. Eta berriro ikusi nuen gizartearen isla espetxean, egoera gogor bat espetxean muturrera eramanda. Hemen egoera larria eta eskubide galera handia, eta han egoera larriagoa eta eskubide galera askoz handiagoa.

Batek kontatzen zuen berak eta bere bikotekide presoak sei hilabete zeramatzatela alaba ikusi gabe. Umeak justu pandemia hasi aurretik bete zituen hiru urte eta espetxetik atera zuten. Ustez osasun irizpideak ziren. Hainbat hilabetez ezin zuten kanpoko bisitarik hartu, baina kartzeleroak-eta egunero sartu eta irteten ziren, barruan batzuek maskara eramaten zuten, beste batzuek ez... Hori, ez dakit, beharbada ezjakintasun momentu batean... onargarria ez da, demagun ulergarria dela, baina oraindik ere...

Orain dela bi aste Zaballan euskal preso politiko bat bisitatu zuen lagun batek esan zidan bisita egin ostean presoak zazpi

egun eman behar zituela erabat bakartuta, txertatuta egonik ere, telefono dei ziztrin bat ere egin ahal izan gabe. Osasunagatik baldin bada, demagun zentzuzkoa dela eta ezin dela telefono kabinara joan. Eta zu, pertsona horretaz arduratuta baldin bazaude, esaten didazu ezin diozula eman mugikor bat deitzeko? Estatu frantsesean dauden preso batzuek berdin zeudela esan ziguten. Eta azken egunetan egoera horrek okerre-
ra egin du leku guztietan.

Badauzkagu logika batzuk nahiko onartuta. Erdigunean ez dago pertsona, zigorra baizik. Gauza horiek, pertsonekiko ardura egongo balitz, beste modu batean egin litezke.

